

VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ PROGRAMAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN EZ BIDERAGARRIEN BALORAZIO TEKNIKOAK.

BALORAZIO TEKNIKOAK. EZ BIDERAGARRIAK

Id proposamena	Titulua	Balorazio teknikoa
2	Herritarrek kalean jarduerak egiteko baliabideak	Proposamenak ez du osatzen. Gure ustez, ez du ekarpen berririk egiten, inguruan badaudelako beste hiri-gune batzuk, patinetan, patineteetan eta abar ibiltzeko aukera hori eskaintzen dutenak. Halaber, eremu estali bat sortzea ere ez litzateke egokia izango, aldamenean autobus-geltoki estalia dagoelako. Gasteizko neguko inauterien jaia herritarren ekimenetik sortu da; herritarren elkarrekin (auzo-elkarrekin, ikastetxeetako guraso-batzordeek, eskualdeko zentroek eta abarrek) lantzen dituzte mozorroak, dantzak, karrozak eta abar, eta udalak lagundu egiten die, bai finantzaketan eta bai desfileen kudeaketan eta ekoizpenean ere.
4	Udako inauteriak	Herritarrek lan handia egiten dute musu-truk eta ia urte osoa ematen dute eginkizun horretan. Uztaileko, esaterako, konpartsa asko eta asko hasiak dira beren jantziak aukeratzeko. Inauteriak erreferentzia bat dira gure tradizioetan, urteko egutegiaren barruan duten esanahiagatik, eta esan den moduan, arrakasta handia dute, bai parte-hartzearen aldetik eta bai ikusleen aldetik ere, eta horrexegatik egokia dela jotzen da. Udan antzeko zerbait egingo balitz, printzipioz, ez lirateke inauteriak izango, mozorroen desfile bat baizik, besterik gabe. Herritarrek parte hartuko ez balute, udalak kudeatu beharko luke zuzenean, eta inoiz ez litzateke lortuko 6.000 lagunek parte hartzea.
5	Julian Apraiz Kalea Berritzea	Aurkeztutako proposamenaren balioespen ekonomikoa ezarritako muga baino handiagoa da
6	Egurrezko Izaki Mitologikoak	Mantentze-lanetan gastu handia izango luke, eta beraz, hori instalatuz gero, urte antzeko aurrekontu-konpromisoa eduki beharko luke berari atxikia Zabalgana auzora doan herri-garraioaren zerbitzua nola hobetu daitekeen aztertzen ari da eusko jaurlaritzako ingurumen eta lurralde politikako saila, eragindako udal departamentuekin/zerbitzuekin elkarlanean: IGI, Herritarren Segurtasuna, Hirigintza, TUVISA eta Ingurumena eta Espazio Publikoa.
8	Zabalgana eta erdialdea lotzea	Hiri-garraio kolektiboa udalaren eskumena den arren, tranbia eta BRT bezalako garraio-azpiegitura berriak Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin izenpetutako lankidetzaren baten babesean proiektatzen dira. Zabalganako kasuan, gaur egun alternatibak aztertzen ari dira. Trazaketa hori egungo bideetatik barrena joango balitz, gainera, ADIF enpresaren baimena beharko litzateke. Programak duen muga

- ekonomikoa gainditzen du proiektu honek
- Salburua auzoan tranbia ezartzeari buruzko azterketak aldaketa batzuk eragingo ditu bide-antolamenduan, eta aldaketa horiek auzoko mugikortasunari eragingo diote. Salburua Bulebarraren eta Nikosia kalearen arteko bidegurutzean glorieta bat sortzea aztertzen ari dira. Varsovia hiribidetik Astronomo kalerantz joateko aukera egon badago, nahiz eta hain ohikoak ez diren bide batzuetatik barrena egin behar den (espaloia gurutzatuz, asfaltatu gabeko galtzada batetik, eta abar).
- Praga hiribidearen eta Elorriagako Atearen arteko bidegurutzean -oinekoentzako pasabide berri bat eraikiko den tokian- biratu ahal izateak ez luke zentzurik izango, tranbia ezartzeak mugikortasunean nolako ondorioak izango lituzkeen zehazten ez den bitartean.
- Legutianoko atea erabat berritzea, Bilbo Plazatik hasi eta Karlos I. Enperadorearen Plazaraino
- Aurkeztutako proposamenaren balioespen ekonomikoa ezarritako muga baino handiagoa da.
- Latinoamerika plazako biribilgunea hirian auto-pilaketarik handienak jasaten dituen inguruetakoa bat da eta 2016 urtean "Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz" programan puntuaziorik handiena lortu zuen. Bertan, trafikoari buruzko azterketa bat egitea eskatzen zuten, arinagoa izan zedin. Azterketa honen ondorioak eta aurreikusitako proiektuen ondorioak zehazten ez dituzten bitartean (BRT eta abar), ez da gomendagarria zalantza horiek edukita baliabide ekonomikoak horretan inbertitzea.
- Parke naturala eta jarduera-eremua
- Torkizunean, korapilo horretan hirigintza arloko eraberritze-lan orokor bat egingo da, plan orokorrean ageri den moduan, eta beraz, ez da bidezkoa tartean obrak egitea
- Margo ezazu zure hiria
- Ekimen hau jada aurreikusia du udalak, mural-ibilbidea programaren bitartez. Proiektuen deialdi publiko bat egin da proposamenak aurkeztu ditzaten.
- Gasteizko Farolen Museoan jarduerak egitea
- Museoak ez dira udalaren eskumena, Arabako Foru Aldundiarena baizik. Gainera, fatxadako horma-irudiarekin lotuta, udalak horma-irudien ibilbidea programa egitea aurreikusia du, eta horri buruzko proposamenak egin daitezke bertan.
- Pilotalekuak hobetzea
- Eskatutakoa ez da bideragarria, ez kudeaketaren antolamenduagatik eta ez duen kostuagatik ere, tenis eta padeleko pistetarako itxitura eta estalkia egitea proposatzen duelako.
- Ertzaintzaren polizia-etxearen eta Mercadona merkataritza-gunearen arteko parkean kirol anitzetarako eremu bat eta parkourrean aritzeko eremu bat sortzea aurreikusten da.
- Ertzain-etxearen atzealdeko pista hutsa
- Txirindularitzan hasteko edo zaldi gainean ibiltzen ikasteko ez da beharrezkoa inolako ekipamendurik edukitzea. Aski da eremu lau bat edukitzea, oztoporik gabea, aldapa arin batekin eta irakasle batekin (jarduera honetan aditua den pertsonaren bat edo senitarteko edo lagunen bat). Ariketa jakin batzuk egiteko zirkuitu batean seinaleak jartzea beharrezkoa den kasuetan, konoen bidez zehaztu ohi da, eta egin beharreko ariketaren arabera jartzen eta kentzen dira.
- Udalak horrelako ariketak programatu ohi ditu mugikortasun astearren testuinguruan, eta halaber, bike station izeneko ekipamenduan, Landazuri kiroldegiaren barruan.
- Bizikleten
- Ez da beharrezkoa. Laster, bizikleten aparkaleku seguru bat irekiko da autobus geltokiko 0 solairuan.

- aparkalekuak
- 23 Frantzia kalea hobetzea
- Ez litzateke egokia izango, Frantzia kalea jadanik eraberritua dagoen hiri-eremu bat delako eta hobekuntzen kostu ekonomikoa baimendutako gehieneko aurrekontua baino handiagoa litzatekeelako.
- Proposamen hori, gaur egun, bideraezina da. Alde batetik, proposatutako kokapena ez da udalaren titulartasunpeko lurzati bat, parking hori Osakidetzaren jabetzakoa delako. Beste alde batetik, udalaren titulartasunpeko beste aparkaleku batean egitea proposatuz gero, indarreko plan orokorrak (eraikuntza eta erabilerari buruzko arau orokorrak. III. Tomoa. V. Titulua: eraikuntza eta erabilerei buruzko arau orokorrak. 5. Kap: errekin, erregai, elektrizitate eta automoziorako gasaren hornidura- edo salmenta-instalazioen arau bereziak) hornidura-puntuak toki jakin batzuetan kokatzea bakarrik onartzen du, hots, beren kalifikazio xehakaturra garraio-estazioena, hiriko zerbitzu handiena, or-11 industriarakoa, Or-12 tailer eta biltegiarena edo merkataritzakoa: merkataritza-establezimendu handia dutenetan.
- 24 Eguzkitako itzalkinak
- Aldi berean, pergola batek ez du etengabeko itzala bermatzen aparkatuta dauden ibilgailuentzat, orduaren eta urte-sasioaren mende baitago hori, pergola horrek sekulako zabalera eduki ezean. Beste alde batetik, zentzuzkoagoa dirudi lehendik dauden estalkiak aprobetxatzea atzipen-sistema fotovoltaikoak ezartzeko, euskarri-egituren kostuak (pergolarenak) aise gainditzen duelako plaka horiena, eta lehendik dagoen estalkiren bat erabiliz gero, ekidin egingo litzateke kostu hori.
- Halaber, parkingeko argiztapena instalazio fotovoltaiko baten bitartez egiteko, beharrezkoa izango litzateke metagailuak erabiltzea, eta hori, ez ingurumen aldetik eta ez ekonomia aldetik ere, ez da gomendagarria, jatorri berriztagarria duen hornidura-sare batera konektatzearekin alderatuta, udalak horixe erosiko baitu orain.
- 25 Denontzako ibilbide seguruak
- Azken batean, proposamen hori ez dugu bideragarritzat jotzen adierazitako baldintzetan, nahiz eta, bestalde, lehendik dauden estalkiak autokontsumorako aprobetxatu ahal izatea aztertu beharko litzatekeen, eta hori ingurumen aldetik nahiz ekonomia aldetik justifikagarria izango litzateke.
- Trafikoari buruzko balioespena:
BRT proiektuaren garapenak asko baldintzatuko litzuzke har litezkeen neurriak, aipatutako puntu guztiak eraberrituko dituelako; balioetsi egin beharko litzateke merezi ote duen orain neurriren bat hartzea, behin-behinekoa izango dela kontuan izanik, edo bestela, BRT proiektuaren barruan horri begira neurri batzuk hartu arte itxoitea. Gainerakoan, eskatzen dena zentzuzkoa dela dirudi.
- 27 Frantzia kalea hobetzea
- Eremu Publikoari buruzko balioespena:
BRT garatzearen ondorioz eskatzen den proposamena aurrera eramatea ezinezkoa da
- Alde batetik, ez litzateke egokia izango aurkeztutako proposamena, Frantzia kalea eraberritutako hiri-eremu bat delako.
- Baina bestetik, hobekuntzen kostu ekonomikoa aurreikusitako gehieneko aurrekontua baino handiagoa litzateke.
- Ez da bideragarria, baimendutako aurrekontua gainditzen duelako.
- 28 Bizikletak alokatzea
- Hemen adierazi beharra dago horrelako irtenbideen kosturik handiena ez dela hasierako inbertsioa izaten, izan ere, horrek, berez, hirian sakabanatutako estazioen kopuru handi samar bat estali lezake, proposamenak dioen moduan; aitzitik, geroko mantentze-lanen kostua izaten da, eta horrek ez du gomendatzen halako neurririk hartzea, geroko gastu arrunt garrantzitsu baten konpromisoa hartzera behartuko lukeelako ekitaldiz

- ekitaldi, hasierako inbertsio hori baino dezentez handiagoa.
- Herrigune
Historikoko horma-
30 hobiak
kontserbatzeko
proiektua
- Jabetza pribatuetan (bizilagunen erkidegoetan) kokatutako horma-hobiak horien jabeenak dira, eta halaber, jabe horiei dagokie horma-hobien mantentze-lanak eta eraberritze-lanak egitea.
- 31 Forondako Ateari
lotzeko bide gorria
- Latinoamerika plazako biribilgunearen iparraldeko bidegorrien sarea ez da jarraitua Forondako Atearen bidegurutzean. Autobus-geltoki berria eraikitzeak are nabarmenagoa egin du hutsune hori.
- 32 Pilotalekua
Molinuevo parkean
- BRT ezartzeko proiektuak eremu horretan eraldaketa batzuk egitea dakar berarekin, eta eraldaketa horien artean, biribilgunearen iparraldean bidegorri-sarearekin lotura egitea dago, Forondako Atea zeharkatzen duen oinezkoentzako pasabideari itsatsita. BRT proiektuak indarrean jarraitzen duen bitartean, ez da gomendagarria eskaera horretarako baliabideak jartzea.
- Ezker pareta duten antzeko pilotalekuak badaude hiriko beste toki batzuetan. Molinuevo parkeko pilotalekua, hain zuzen ere, horrelako ezaugarriak dituen bakarra da hirian (frantses motakoa), eta beraz, ez da bideragarri ikusten hori eraldatzea.
- Proposamenak bi xede ditu: batetik lur gaineko aparkalekurako xedatutako eremua hobetzea, eta bestetik, “lur gaineko aparkaleku-gabezia konpontzea” .
- 33 Aparkalekuak
- Lehenengo gai horren aurka ez dugu inolako eragozpenik, eta interesgarria da aparkalekurako xedatutako eremu horren antolamendua hobetzeko azterketa bat egitea.
- Interesgarria izango litzateke, halaber, lurpeko aparkaleku gehigarrien edo ordezkoen eskaintza-aukerak aztertzea.
- Dena den, lur gaineko aparkalekuen eskaintza handitzeko erabakia, proposatzen den moduan, mugikortasunari buruzko plangintza bere osotasunean aztertuta jorratu beharko litzateke, eta hori mieeppl planeko jarraibideen aurka doa.
- 34 Kirol-gunea ixtea
Amaia zentroan
- Kirol-gunea itxi ez ezik, egokitu eta argiztapena, berokuntza, zerbitzuak eta abar ere jarri beharko lirateke bertan; eta horrek beste kontu batzuetan sartu gabe, gainditu egingo luke ezarritako aurrekontua.
- 35 SansomendiI duina
eta oinezkoentzat T
Telefono
- Aurkeztutako proposamenaren balioespen ekonomikoa ezarritako muga baino handiagoa da.
- 36 mugikorrari STOP
autoa edo bizikleta
gidatzean
- Udaltzaingoak bide-heziketa eta sentsibilizaziorako kanpainak egiten ditu aldian behin, eta horien artean dago gidatzean telefono mugikorra erabiltzeari buruzkoa. Gainera, udaltzainak lege-hauste horiei adi egoten dira egunero, eta egoki denean egoki diren salaketak jartzen dituzte Hiri izaerako bide publikoetan erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal ordenantzaren 23. Artikuluak bizikletan nola ibili behar den arautzen du, eta debekatu egiten du espaloietan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzea, kasu hauetan izan ezik: kalean bidegorririk ez dagoenean, kaleko galtzadak trafiko lasairik ez duenean eta, horrez gain, espaloiak 3 m-tik gorako zabalera librea duenean.
- 37 Seinaleak
- Bizikletak beti errespetatuko du oinezkoen lehentasuna. Udaltzaingoaren ardura da ordenantza hori betetzen dela zaintzea.
- Bizikletek dituzten ezaugarriengatik, toki askotatik ibili daitezke, eta horrek asko zailtzen du espaloietan seinaleak eraginkortasunez jartzea.
- Horren ondorioz, udaltzaingoak informazio eta zaintza kanpainak egin ditzala proposatzen da.

- 38 Terrazak Proposatutakoa terrazen baimenei buruzko baldintza berezietan jasotzen da, besterik adierazi ezean, eta bertan, hauxe dio:
Nahitaezkoa izango da terrazen baimena eman izana jakinaraztea, baita mahaitxoek kokapen-planoa eta zenbakia ere, bide publikotik ongi ikusten den toki batean, titularra, baimenaren xedea eta horren baldintzak egiaztatuta ahal izateko.
- 41 Farolen museoko esku-orria Proiektu unitario hau ordaintzeko beste baliabide ekonomiko batzuk badaude. Museoa sustatzeko beste neurri batzuekin batera proposatu izan balitz, egokia izango litzateke udalaren ikuspegitik horren bideragarritasuna aztertzea, baina esku-orri hau inprimatzea eta zabaltzea, besterik gabe, ez da hain garrantzitsua, museoaren alorrean eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren partetik gai honek lor dezakeen babesaren ikusita Prado kalea behar hainbat argiztatuta dago. Orain urte batzuk eraberritu zen eta farolak ditu bi espaloietan. Duela zenbait hilabete, Prado kalearen eta Becerro Bengoa kalearen arteko bidegurutzeko argiteria indartu egin zen, baita bi kaleen arteko plazakoa ere, eta uste genuen beharrezkoa zela, oinezkoak, tranbia eta autoak batera ibiltzen diren inguru bat delako. Horrez gain, katedral berriaren aurreko plazan argiteria hobetu zuten. Ezin da hobetuz programaren barruan sartu, arau izaera duen proposamen bat delako eta udalak aldatzeko gaitasunik ez duen eskumen bat arautzea proposatzen delako.
- 42 Erdialdeko argiztapena
- 44 'Zero kota' instalazioa San Prudentzio/Uleta kaleetako jarduketak Mugikortasun-planarekin eta eraginda geratuko litzatekeen gunearen izaerarekin guztiz bateraezina da proposamen hori. Proposamenean ez dira kontuan hartzen kostu ekonomikoak: batetik, poltsen balioa daude baina bestetik, kudeaketa kostuak. Izan ere, poltsak banatze-zerbitzu bat mantentzeko, bestelako zenbait alderdi izan behar dira kontuan: besteak beste, poltsak eskatzen duen txakurra duela egiaztatzea, pertsona bakoitzeko zenbat poltsa banatzen diren kontrolatzea eta noizero, izakinak ere bai... Horrek guztiak aplikazio informatiko baten beharra ekar dezake.
- 46 Prudentzio/Uleta kaleetako jarduketak
- 47 Txakur-kaken poltsen erabilera, egoki erabili daitezkeen. Txakurren gorozkiak biltzeko poltsak gizarte etxeetan banatzea puntualki bakarrik aurreikusita daitezke, gai horri buruzko kontzientzia-kanpaina baten barruan, baina inoiz ez ohikotasunez. Horregatik, aurkeztutako proposamena ez da bideragarritzat jotzen
- 49 Gizarte erakundeen mapeoa Herritarren parte-hartzerako zerbitzuko planen barruan dagoeneko aurreikusia dago ekimen hau, eta Sartu-Alava enpresaren bitartez gauzatuko da, eta zehazkiago, Saregunek kudeatuko du. 2018. Urteko bigarren seihilekorako aplikazio hori eraginkor egotea lortu nahi da. Garbiketa-zerbitzurako eta hondakinak biltzeko kontratatutako eskaintzaren barruan hondakin organikoak biltzeko eredu aldaketa aurreikusten da. Eredu horren barruan, zehaztu egingo dira edukiontzia, biltzeko sistema, kokalekuak eta abar, eta segurtasun osoz, edukiontzia eredu berria ez da estalia izango eta kontrolpeko irekitze-sistemaren bat jasoko du: giltza, txipa duen txartela,...
- 50 Birziklatzea
- 51 Zuhaitz-kimaketei buruzko informazioa Gure iritziz, horrelako proposamenei ez dute lekunik "Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz" programaren barruan, horrelako eskaerak egiteko beste bide batzuk daudela. Nolanahi ere, esan beharra dago gaur egun zerbitzuan erabil daitezkeen giza baliabideekin ezinezkoa dela eskatutako informazioa edukitzea, nahiz komenigarria izango litzatekeen.
- 52 Herritarren Segurtasuna Auzoko polizia jadanik aurreikusia dago eta lanean ari da Gasteizen. Halere, udaltzaingoaren plantilla oso urria denez, gaur egun polizia horietako batzuek udaltzaingoaren esku utzitako beste lan batzuekin uztartu behar dituzte beren lanak. Gainera, proposamen hau Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programatik kanpo dago, proposamen bakoitzari izendatutako gehieneko aurrekontua eta iraupena gainditzen dituelako.

- 53 INFORMAZIOA Duela urte batzuetatik hona, udaltzainek beren uniformeetan (bularraldean, armari profesionalaren azpian) udaltzain bakoitzari dagokion identifikazioa daramate, edozein herritarrek ikusteko moduan.
- 54 Makal emeak kentzea Hirian makal zuhaitz eme ugari ditugu, duela makina bat urte aldatuak. Zuhaitz horiek kendu edo ordezkatu egiten dira egoera txarrean aurkitzen direnean, eta ileak askatzea aski arrazoi izaten da horiek kentzeko. Ordezkatzen dituztenean, beste espezie bat aldatzen dute. Hiriko zuhaitz onura handiak ekartzen dizkiete herritarrei, nahiz eta, batzuetan, eragozpen batzuk ere sor ditzaketen, baina horiek txikiagoak dira osotasunean hartuta. Dena den, aspaldiko urteetan jada ez da makal zuhaitz emerik aldatzen hirian eta beste espezie batzuk erabiltzen dira. Gainera, hiriko makal zuhaitz eme guztiak ordezkatzuz gero, aurrekontua gainditu egingo litzateke. Salburuako igerilekuan jolaserako elementuak instalatzea proposatzen du. Konpromiso bat adierazten du eta proiektuarekin bat ez datorren proiektu-lehiaketa bateko infografia bat eskaintzen du (lehiaketa askotan gertatzen den moduan) alegia, ideia irabazlearen parte da informazio hori, baina ez ordea agindutako proiektuarena
- 55 Agindutako ekipamenduak Salburua gizarte etxean. Salburua gizarte etxeak uko egin zion gauza askori, aurrekontu-eskasiagatik Eraikuntza-jarduerak proiektuaren barruan egin behar dira. Geroko jarduerak teknikoki aztertu behar dira, arazoak eragin ditzaketelako igerilekuaren ontzian. Departamentuak ez ditu kontuan hartzen elementu horietako batzuk segurtasun-arrazoiengatik, baina dena den, jolas egitea, horixe baita helburua, eraikuntzakoak ez diren elementuen bidez lor daiteke, eta beraz, jarduera honek ez du istilu gehiago merezi.
- Alkatearen postontzian erantzun bat eman zaio horri, orain berriki
- 56 Oilategi Komunitarioa Ekipamendu batean (Arkaiateko auzo-baratzeak) oilategi bat jartzeari buruzko erabakia espazio horren kudeatzailearen ardura da.
- 60 Jeronimo Roure kaleko sarbidea Horrelako soluzioak ez dira gomendatzen, bai zirkulazio-jarioaren gainean dituzten ondorioengatik eta bai berarekin dakartzan arriskuengatik ere. Udal eraikinekin zerikusia duen proposamen hori dagoeneko eskaintzen dute zenbait udal sailetan (biltzar eta turismo zerbitzuak, kultura zerbitzuak), eta titulartasun pribatua duten eraikinei dagokienez, horiek beren araudi eta plangintza propioen arabera araututa daude. Beste alde batetik, jardunaldi hori guztia bertako langileen bitartez koordinatzeko sail bat sortzeak gainditu egingo luke baimendutako aurrekontua.
- 62 Open House Gasteizen
- 63 Haurrentzako jolas-eremu itxi berriak Juan Aiala plazako Proposamenak aurrekontua gainditzen du
- 64 jolas-eremua hobetzea Gure ustez, aldameneko kaleetan badaude jolaserako beste eremu zabal batzuk, Juan Aiala plazan daudenak osatzen dituztenak eta, beraz, ez da bidezkoa eskaera hori onartzea
- 65 Birziklatzea Hondakinak bereizteko ratioak hobetu ahal izatea eta horrek dituen kostu ikaragarriak (eraikuntza + mantentze-lanak) alde batera utziz, proposamena gauzatzeko beharrezkoa izango da alde aurretik indarreko hiri-antolamenduko plan orokorra aldatzea, sistema pneumatikoa etxebizitzetaraino iritsi dadin. Beraz, epe luzerako proiektu bat izango litzateke eta beste udal sail batzuk ere esku hartzea eskatuko luke.
- 66 Lakuabizkarra Proposatutako zentroa haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako zentro bat da, eta bertan inbertsio bat egiteko asmoa dago, baina eskumena eusko

- HLHI jolas-eremuaren estalkia jaurlaritzarena da. Eguzkilorea guraso batzordeak, hots, jarduera hori proposatzen duen elkarteak, hezkuntza sailera bideratu beharko luke bere eskaera.
- Lehen hezkuntzako ikastetxeetarako (haur-eskoletarako) eremu babestuak aztertzekeo premia aztertzen ari dira mantentze-zerbitzuaren aldetik, eskumen hori inbertsio propioei eragiten dielako eta jarduera horietarako aurrekontu bat xedatuko delako.
- Gatazka bat sortzen ari da ikastetxeek dituzten premia berrien inguruan, udal administrazioari eskatzen zaizkiolako, eta udalaren eginkizuna, ordea, ikastetxeetan mantentze-lanak eta kontserbazio-lanak egitea delako, baina ez zuzkidura berriak egitea, nire ustez kasu honetan gertatzen den bezala.
- 68 Bi noranzko jartzea Nikosia Kalean Herritarrei ibilbideren bat laburtzen diela pentsatzen dugu, baina ez da zehazten zer helburu izan dezakeen proposamen honek, eta erabilera orokorrik ez izateaz gain, joan-etorriak autoz egin daitezela erraztearena kenduta, norako bikoitzak gehiegi zailduko luke Nikosia eta Doris Lessing kaleen arteko bidegurutzeta, bai ibilgailuentzat eta bai oinezkoentzat ere.
- 69 2D eta 3 D animazioari buruzko hitzaldi-zikloa Berez, enplegurako heziketa-unitateak behin baino gehiagotan landu duen esparru bat da, heziketa-ikastaro bereziak antolatu izan baititu. Une honetan, jarduera horren barruan honako hauek egitea aztertzen ari dira: enplegurako jardunaldi teknologikoak, arlo horri eskainitako jardunaldi baten barruan, eta ikusi zer bideragarritasun duen geroko beste ariketa batzuetan heziketa-jardueraren bat egiteko
- 70 BIKEPARK estalia Proiektuetarako xedatu daitekeen gehieneko aurrekontua gainditzen du proposamen honek
- 73 Buruko gaixotasunak dituzten haurrei ospitaletik kanpo egitea esku-hartzea We The Children Are Looking At The Sky (the sun) Hezkuntzaren balioespena: alde batetik, zerikusia duten administrazio guztiek premia horri heldu beharko diote eta denen artean erantzun bateratu bat eskaini. Gasteizko udalak ezin dio bere aldetik bakarrik horri erantzun, ezta premia horri adabakiak jarriko lizkioketen neurriak proposatu ere, baliabideen inguruko plangintza eta balioespen bat behar duelako. Beste alde batetik, proposamen horrek jarduera-plan bat dakar berarekin, deialdi honen bi urteko plana gaindituko duena. Alegia, aurrekontu-zuzkidura hori abian jarri ondoren, eutsi egin beharko zaio denboran iraunkortasunez. Deialdi honen testuinguruan bideragarria ez izan arren, badira beste laguntza-deialdi batzuk, eta arlo horretan lan egiten duten elkarteek horietara jo dezakete. Horietako bat hezkuntza zerbitzuak berak kudeatzen du, eta horrelaxe jakinarazi zaio proposamena egin duen pertsonari.
- 74 Futbol-zelaiak Lakuabizkarra eta Ibaiondo auzoentzat Proposatutako jarduerak gainditu egiten du programa honetako proiektuetarako aurrekontu-izendapena
- 79 Araba Pabiloi zaharraren kupula Aipatutako azpiegitura ez da udal jabetzakoa, eta horrenbestez, udalak ez du eskumenik horren erabilera-xedeari dagokionez.
- 83 Lehiaketako poieteak Beste alde batetik, proposatutakoa bezalako jarduera batek gainditu egingo luke baimendutako gehieneko aurrekontua. Ezin daiteke esan adierazitako poieteak hobeak ez direnik, baina ez dira beharrezkoak. Beren eginkizuna betetzen ari diren poieteak berritzea eta horien ordezkari eliteko batzuk jartzea, egun ditugun ekipamendu publikoen iraunkortasuna, erabilgarritasuna eta segurtasuna bermatzen duten beste premia batzuen atzetik jarri beharko litzateke.
- Gainera, aurrekontuak gainditu egiten du programan ezarritako muga.

- Salburuako dorreetako urmaelak urez betetzea,
- 84 Salburua parkeko hezeguneek irispide duin bat berreskuratzeko. Ez da udalaren eskumena
- 85 Hiriko garraioa hobetzea Bideraezina da garraio publikoaren sareak egun duen diseinuarekin
Kexaako Gaztelua eta Fontetxako
- 92 Gaztelua kaleen arteko bidegurutzea hobetzea Arazo hori identifikatua zegoen eta are irtenbide bat ematea programatua zuten, proposatutakoa ez den diseinu batez Kirol-zerbitzuak badu kirol-jarduerarako programa bat, eta bertan, kirol modalitate ugari sartzen dira, auzo eta kirol-elkarteetan hautemandako interesarekin bat datozenak, eta horrez gain, kirol-zerbitzuaren helburuak eta beste administrazio-ohar batzuk ere kontuan hartzen ditu.
- 93 Capoeira helduentzat Izan ere, capoeira, beste modalitate batzuekin batera, zerbitzu honen programazioaren barruan sartu izan da lehenago ere. Arrazoi desberdinak direla medio, horiek programatzeari utzi diote.
Azken batean, jarduera berriak gehitzea ez dago interes partikularren mende bakarrik, baizik eta zerbitzuaren helburuekin edo kontratazioaren inguruko arazoekin loturik dauden beste aldagai batzuen mende.
- Martxoaren
- 96 Hiruaren plazako bolatokia hobetu eta konpontzea Adierazi behar da hiriko mantentze-lanen udal zerbitzuak hurrengo egunetan bolatokia konpontzea aurreikusia duela. Beste alde batetik, gure ustez, bolatokia estaltzeko aurkeztutako proposamena ez da bideragarria, elizatik eta zuhaitz-lerro batetik oso hurbil dagoelako
Udal zentroetan herritarrek Proiektu berri gisa ez da bideragarritzat jotzen, helburu hori bera duen udal proiektu bat garatzen ari direlako dagoeneko. Udal zentroetan dagoeneko badaude ordenagailu batzuk, proban, software askeko sistema eragilea instalatua dutenak. Horiek baliozkotu ondoren, herritarrek erabili ahal izango dituzte.
- 100 Sistema Eragile Librea izatea Gaur egun, erabiltzaileentzako administrazio-sistema bat garatzen ari dira software askearen bidez, horrelako ordenagailuen erabilera eta mantentze-lanak kudeatzeko.
- 103 Peru kalea guztiz eraberritzea Aurkeztutako proposamenaren balioespen ekonomikoa ezarritako muga baino handiagoa da.
- 104 Auzo Eusko jaurlaritzako bizilagun zerbitzuak herritarren arteko bitartekaritza-beharrak jaso eta horiei erantzuten ahalegintzen da. Dituen eginkizunen artean, honako hau nabarmentzen da:
Zerbitzua “komunitate bateko herritarren artean edo jabeen eta maizterren artean bitartekaritza-lan bat egitea, parte-hartzaileen artean sor daitezkeen eta

- zuzenean konpondu ezin diren gatazkak konpontzeko xedez” .
- 1) eusko jaurlaritzako bizilagun zerbitzu publiko eta doakoak herritarrentzako bitartekaritza eta aholkularitza-zerbitzu bat eskaintzen duenez, ez da bideragarri ikusten beste bitartekaritza-zerbitzu bat jartzea, egungoaren baldintza eta ezaugarri berdinekin.
 - 2) hobetuz programak iraupen eta aurrekontu jakin bateko programak eta jarduerak garatzeko aukera eskaintzen du. Kasu honetan, denboran iraunkorra den zerbitzu bat sortzea proposatzen da, eta beraz, ez dugu bideragarri ikusten programak eskaintzen dizkigun baldintza horietan.
 - 3) Gasteizko udalak hurrengo urteetarako izaera komunitarioa duen bitartekaritza-zerbitzu bat sortzea aurreikusi du.
- 105 Salvador kalea
guztiz eraberritzea
Pablo Neruda
plazako iturriaren
108 inguru horretarako
erabilera berria
Gasteizen trenaren
sarrera
110 oinezkoentzat
bihurtzea
Zarataren aurka on-
112 line
Judimendiko
Sutaustegi
113 parkearen erabilera
berregokitzea eta
arautzea
114 Automobil-zirkuitua
115 Kuku Festival
Jaialdia
119 Proposamen
desberdinak
123 Auzoko
konpostalekuak
- Aurkeztutako proposamenaren balioespen ekonomikoa ezarritako muga baino handiagoa da.
- Gure iritziz, skate eremu bat edo antzeko zerbaiteko aurkeztutako proposamena ez da bideragarria, eremu itxia delako eta etxebizitzetatik oso hurbil dagoelako, eta beraz, bizilagunei eragozpenak eragingo lizkiekeelako.
- Ez da udalaren eskumena.
Aurrekontuak gainditu egingo luke ezarritako muga
- Giroko zarata-maila neurtuko duten gailuak edukitzeko premia hori herritarren atsedena eta gaueko aisialdia bateragarri egiteko plan baten barruan aurreikusi da 2017an garatuko diren etorkizuneko jardueren artean, eta horrek modu nabarmenean eragingo dio Erdi Aroko Herriguneari Proposamen honen bidez banatu egin nahi da parkea, txakurrak dituzten pertsonentzat batetik eta haurrentzat eta gurasoentzat bestetik. Hori beharrezkoa dela adierazi dute, erabilera eta bizikidetzaren aldetik arazo bat dagoelako.
- Horrek parkea berrantolatzea eskatzen du.
- Animaliak babestea eta edukitzea arautzen duen udal ordenantza bat dago bizikidetzaren hori arautzeko. Jolas-eremua ikastetxetik hurbilago dagoen beste eremu batera aldatzea ez da bideragarri ikusten. Horrek eragingo lukeen zenbateko ekonomikoa neurritz gainera da txakurren jabeekin bizikidetzaren erdiesteko helburu horri begira, jolas-eremu hori egoera onean dagoelako eta, arestian esan den bezala, badagoelako ordenantza bat horri buruz.
- Kalkulatutako kostuak gainditu egiten du programa honetan ezarritako muga
- Teknikoki bideragarria bada ere, ezin da baliozkotzat jo, proposamen horretan bertan proiektua erakunde proposamen-egileari esleitzeko eskaera jasotzen delako, baldin eta herritarrek hori hautatzen badute, eta hori ez da aurreikusten Mejuando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programaren barruan.
- Araua hauxe da: bozketak egin ondoren lehentasuna eman zaion edozein proiektu, kanpo-kontratatorik egonez gero, deialdi publiko baten bidez egitea da.
- Harremanetan jarri dira erakunde proposamen-egilearekin, eta ados daude proposamena erretiratzeko.
- Ez da inolako jarduerarik zehazten eta horrek ezinezko egiten du balioespen bat egitea.
- Proposatutako ekipamenduak (konpost-ontzi komunitarioak) honela kudeatu litezke:
- kanpoko enpresa baten laguntza teknikoaren bidez.

- eremu horren erabilera hitzarmen bidez elkarte bati esleituz
Lehen aukerak aurrekontu-inplikazio batzuk ditu hurrengo ekitaldietan, eta beraz, ez dator bat hobetuz 2017 programak ezarritako baldintzekin.
Bigarren aukerari dagokionez, berriz, ez dakigu ekipamendu honen kudeaketa bere gain hartzeko prest dagoen elkarerik badagoen.
- 127 Tranbiaren aurrean oinezkoari babesa eskaintzea
Proposamenak aurrekontua gainditzen du.
- 130 Skate park
Egun dauden skate park zaharrenak (San Martin, Sansomendi eta Zabalgana) konpontzeak lehentasuna duela jotzen da, instalazio berriak egitearen aurretik.
Eskumenen ikuspegitik lehen erantzukizuna hezkuntza-administrazioarena bada ere, egia da, baita ere, ikastetxeetako ikasketa-planak garatzen eta osatzen udalak duen inplikazioa nabarmena eta, borondate aldetik, esanguratsua dela.
Hala eta guztiz ere, aurkeztutako proiektua ikastetxeen ohiko funtzionamenduaren egunerokotasunean kudeatu daiteke, ikastetxetik atera beharrik gabe eta zuzkidura eta azpiegitura berriak sortu beharrik gabe.
- 131 Hezkuntza arloko esperientziak partekatzeko eremu bat diseinatu eta abian jartzeko proiektu pilotua.
Izan ere, hezkuntza-zerbitzuan ez dugu hauteman ikastetxeen eskaerarik alde horretatik
Beste kontu bat da zientziari eta giza eboluzioari buruzko esperimentazio-eremu bat sortzea, uneren batean aipatzen den moduan. Garrantzi handiko proiektu bat eskatzen du horrek, esperientzia-pilotu baten bitartez gauzatu ezin daitekeena, eta une honetan, bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik ezin zaio horrelako proiektu bati aurre egin, erabiltzaile potentzialen bolumena kontuan izanik, Europa barruko hiri handietan gertatzen den moduan.
- 133 Ekialdean altzariak aldatzeko, garbitzeko eta argiztatzeko eskaera.
Díaz de Olano Margolaria eta
Proposamena ez da bidezkoa, eskaera hori aprobetxamendu partikular bati begira egingo da.
- 134 Areitio kaleetan bizikleta-aparkalekuak jartzeko eskaera
Udalak bizikleta-aparkalekuak jartzeko kanpainak egiten ditu urtero, hiri osoan barrena, bizilagunen eskaerak abiapuntutzat hartuta. Díaz de Olano margolariaren kalean eskaintza aberatsa dago eta Areitio kalean ere bai; dena den, inguru horiek berrikusi egingo ditugu, eskaera eskaintza baino handiagoa den jakiteko. Behar izanez gero, eskaera hau urteko kanpainaren barruan sartuko litzateke.
- 137 Honduras kaleko 1,3,5,7 zenbakietan sarrera/irteera berria
Aurrekontua gainditzen du
Hezkuntza Zerbitzuan uste dugu, kontsulta batzuk egin ondoren, hirian ez dagoela kirol-eremuen eskasiarik, eta horrelakoak erabiltzeko eta horietara sartzeko dauden modu ugariak (librea, federatua, ikaslea) zabalki erantzun diotela premia horri.
- 139 Daukaguna aprobetxatzea aurreztea da.
Ikastetxeetako jolastokiak zabaltzeko eta, oro har, herritar guztientzat irekitzeko aukera hori berriro aztertzen ari gara, duela urte batzuk abian jarri genuen politikari berriro helduz, baina kirolean aritzera mugatuko ez den ikuspegi batetik betiere.
Hezkuntza-eremuen erabilera testuinguru orokorrako baten barruan proposatu behar da, kirolaren eremua gainditu eta aisialdiko eta kultura arloko

- 140 Eskoletako jolastokiak, gizarteratzea eta dibertsitatea. Denonak, denontzat.
- 141 Ibilgailuen irteera iparralderantz aldatzea Honduras kalean Honduras kaleko 1-5 zenbakien eta tranbiaren arteko eremua
- 142 berreskuratzea itxoinaldia errazteko
- 143 Eremua hobetzea Pablo Nerudan
- 144 Errefuxiatuei harrera egitea
- 146 'Aparkaleku-garden-a' sortzea Abetxukuko Ibaialde kalean Zaramaga auzoan
- 148 Urbina kalea garbitzeko eskaera
- erabilerarekin loturik egongo dena, betiere auzo barruan bizikidetzat sustatzearen ikuspegitik. Adierazi beharra dago udalaren eskumena haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako herri-ikastetxeetara soilik mugatzen dela, baina ez ditu bere barne hartzen bigarren hezkuntzako ikastetxeak. Proposamen interesgarria eta ikastetxeetan beharrezkoa da, jolastokien erabilera horien diseinuak berak baldintzatzen duelako, eta genero-berdintasunaren aurkako, inklusibitatearen aurkako eta dibertsitatea errespetatzearen aurkako erabilera-egoerak eragiten dituelako egunero. Jolastokiaren eremu hori diseinatzeko partaidetza-prozesuak ere ahalmen handia du hezkuntzaren ikuspegitik. Gainera, jolastoki irekiaren formularen bitartez, ikasketa-egunetatik kanpo eta ikasketa-orduetatik kanpo komunitateak erabili ahal izatea bultzatzen du. Halere, ikastetxeetan inbertsioak egitea eusko jaurlaritzaren eskumena da, nahiz eta badakigun udalak historikoki inbertsio garrantzitsuak egin izan dituela ikastetxeetan. Lan-metodologia parte-hartzailea eta hezkuntza arloan eragin garrantzitsua duena da, eta aldi berean, ikastetxeetako jolastokien diseinua eta erabilerak premiaz berraztertu beharra dagoela erakusten du, nahiz eskumenez ez dagokion udalari.
- Ez dator bat arlo honetan indarrean dauden udal planekin Exekuzio-aurrekontuak gainditu egingo luke ezarritako muga
- Ez da udalaren eskumena
- Proposamenak aurrekontua gainditzen du. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera egitea barne ministerioaren eta harrera egiten duten ggkeen artean koordinatua dago lankidetzat-hitzarmen bidez. Formula honen bidez, iritsi berrien premiak estalita geratuko liriteke hasieran bederen. Udalaren mende eta beste herri-administrazio batzuen mende dauden zerbitzuak beharrezkoak izan daitezke iritsi eta lehen harrera egin ondorengo faseetan eta, nolana ere, osagarriak harrera-fasean. Udalak arlo honetan duen eskumen murrizaren ondorioz, aurkeztutako proposamena ez da bideragarritzat jotzen, udaleko gizarte-zerbitzuak ez direlako egokiak nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera egiteko. Lur gaineko aparkaleku-eskaintza hedatzeko erabakia, oro har, mugikortasunari buruzko plangintzaren ikuspegitik aztertu behar da. Lur gaineko aparkalekuetarako azpiegitura berriak sortzea meeplaren jarraibideen aurkakoa da.
- Ziurrenik ingurumen eta hidrografia aldetik ondorioak izango ditu espazio horretan, Zadorra ibaiaren ibilgutik hurbil dagoelako. Lur gaineko aparkaleku-eskaintza hedatzeko erabakia, oro har, mugikortasunari buruzko plangintzaren ikuspegitik aztertu behar da. Lur gaineko aparkalekuetarako azpiegitura berriak sortzea meeplaren jarraibideen aurkakoa da. Ziurrenik ingurumen eta hidrografia aldetik ondorioak izango ditu espazio horretan, Zadorra ibaiaren ibilgutik hurbil dagoelako.

- 150 Aiala Kantzilerraren
kalea atseginagoa
egitea Kalkulatutako aurrekontua gainditzen du
- 151 Erdi Aroko
Herriguneko
argiztapena
hobetzea Ez da beharrezko ikusten Erdi Aroko Herriguneko argiztapena berritzea, duela urte gutxi horren eraberritze-lan orokor bat egin zelako, eta oro har, Herriguneko kale guztietan egun dagoen argiztapena oso ona delako.
Peru kalean
argiztapena Ez da bideragarritzat jotzen, espaloiak estuegiak direlako bertan argi-puntuak jarri ahal izateko.
Espaloietan jarritako edozein elementuk horien zabalera erabilgarria murriztea eragingo luke, eta ondorioz, ez lituzkete beteko ibilerraztasunari begira ezarritako gutxieneko zabalera-baldintzak.
- 152 hobetzeko eta
paperontziak
jartzeko eskaera
Alamedako Lehengo argiak kendu eta horien ordeztu led teknologia darabilten berri batzuk jarri ondoren, kaleko argi-intentsitateak eta uniformetasunak egokiak dira. Jarduera hori duela bi hilabete egin zen.
- 154 Markesaren plazan
zabuak dituen haur-
parke bat egitea Koroatze auzoan garatutako Smartencity europar proiektuaren bidez, Aldabe plazan adin guztientzat jolas eta aisialdirako eremu zabal bat egitea aurreikusten da, Alamedako Markesaren plazaren ondoan.
Euskal Herria
Bulebarraren eta
Honduras kalearen
- 155 arteko
oinezkoentzako
igarobidea Ez dago proposamen bat, arazo baten adierazpena baizik.
(Bambino) Ikusi dute zein den premia.
hobetzeko jarduera. BRT proiektuak pasabide honen aldaketa gogor bat proposatzen du, eta beraz, ezin daiteke sartu Meiorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programaren barruan.
- 157 SALBURUA:
hutsik dauden
lurzatiaren egoera Udalak, FCC-ren bitartez, urtean bi segaldi egiten ditu bere jabetzako lurzatiaren. Irailean bigarren segaldia egingo da.-
hobetzea Ez da egoki ikusten landare-lurraz betelana egitea
- 158 Aihotz Plaza
hobetzea Galtzada-harriak konpontzeko eskatutako lan horiek berehala jarduteko udal taldeek egiten dituzten mantentze-lan eta konponketen parte dira.
Halaber, inguru horrek argiztapen eta altzari egokiak eta nahikoak ditu
- 159 Autobus-geltokiaren
ondoan hutsik
dagoen lurzatiaren
egokitzea, Gure ustez, ez du ekarpen berririk egiten, inguruan badaudelako beste hiri-gune batzuk, proposatzen duten helburu hori betetzen dutenak (haur-jolasak, bolatokia, eta abar). Halaber, eremu estali bat sortzea ere ez litzateke egokia izango, aldamenean autobus-geltoki estali bat dagoelako.
aisialdiko, erabilera

- anitzetarako eta adin guztietarako eremu estali bat sortzeko.
- 161 Parke osasungarria Arriagan
Adineko pertsonen zerbitzuak parke osasungarri baten deialdia aterako du laster, eta Lakua Arriagako adinekoen zentroan kokatuko da hori. Zentro hori Frantzisko Xabier Landaburu kaleko 1 zenbakian dago. Parkea Barrutiaren barruan jarriko da eta egun osoan irekia egongo da eta monitore bat izango du (ordubete/astean).
Ondoko eremu batean laster parke osasungarri bat jartzera doazenez gero, ez da bideragarri ikusten beste bat jartzea parkean, eta gainera, ezinezkoa izango litzateke beste honek monitore bat edukitzea.
- 163 Komun publiko iraunkorrak eraztun berdean
Proposamena bideraezina da, gaur egungo plantillarekin ezin dugulako komun garbiketa-zerbitzua geure gain hartu.
- 164 Komun publikoak eraztun berdeko basoetan
Proposamena bideraezina da, eraikinen mantentze-lanetarako buruzagitzaren ustez egungo plantillaren bidez ezin daitekeelako bere gain hartu komunak garbitzeko zerbitzua.
- 166 Etxeko olio birziklatzea
Gaur egun, sukaldeko olio erabilia edukiontzien bidez biltzeko kontratua, 2012. Urtean esleitu, auzitara eramana dago. Horri buruzko ebazpena eman orduko, lehiaketa berri baterako deialdia egin edo, bestela, enpresa esleipendunarekin hitzartutako kontratuari hasiera emango zaio. Proposatutako jarduerak merkataritza eta ostalaritzaren plan estrategikoaren barruan daude. Horietako batzuk garatzeko daude oraindik, beste batzuk abian dira, eta asko aspaldiko urteetatik ari dira garatzen.
- 170 Hurbileko merkataritza suspertzeko plana
Proposatutako plan hori, hain zuzen ere, 1.000 biztanleko txikizkako 200 denda baino merkataritza-zuzkidura txikiagoa duten Gasteizko auzoei zuzentzen zaie. Kopuru hori baino zuzkidura handiagoa duen auzorik ez dago Gasteizen. Horrela, merkataritza eta ostalaritza buruzko azken diagnostikoaren arabera, zabalgunek, esate baterako, 55,3 merkataritza-establezimendu ditu 1.000 biztanleko.
Gogoratu nahi dugu merkatarien eta/edo ostalarien edozein elkarte eska dezakeela merkataritza-mahaian parte hartzea. Plan estrategikoaren jarraipena eta kontrola egiteko eratutako organoa da hori.
- 172 Genero-indarkeriari buruz sentsibilizatu eta aurea hartzeko kanpaina berritzailea
Proposamen hau teknikoki ez-bideragarritzat balioetsi da, elkarteak berak egiteko proposamena duen jarduera bat aurkezten duelako eta, gainera, berdintasun-zerbitzuak dagoeneko baduelako indarkeria matxistari buruz sentsibilizatzeko eta horri aurea hartzeko estrategia bat, ekintza eta kanpaina desberdinak biltzen dituena.
- 174 Mendizabala Bizirik
Ez da proposamen zehatz bat. Mendizabala kultura-ekitaldien gune bat da (beste batzuen artean) eta diru-laguntzetan oinarritzen da horrelakoak garatu ahal izateko. Adibide batzuk: zenbait zirko tematiko urtean barrena, Azkena Rock Festival, su artifizialak. Mendizabala era guztietako ekitaldi pribatuetarako erabilgarri dagoen gune ireki bat da. Udalak hori erabiltzea errazten du, herritarrentzat duen kultura-interesari buruzko informazioa eskainiz eta, era horretan, horien errentagarritasuna ahalbidetuz.